

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 10ean hartutako erabakiaren laburpena; bertan deitzen baitira hezkuntza-premia berezien arloko elkarteek antolatutako hezkuntza-jarduketarako laguntzetarako deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak, 2020-2021 ikasturtea

BDNS(Identif.): 515708

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

Lehen. Onuradunak

Deialdia hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonak artatzen dituzten elkarteei zuzentzen zaie berariaz; irabazi-asmorik gabeko elkarte izan behar dute elkarte horiek, eta beren egoitza soziala Vitoria-Gasteizen izan behar dute.

Bigarrena. Helburua

Hauxe da dirulaguntzen deialdi honen xedea: hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonekin lan egiten duten elkarteei laguntzea, bai bazkideei edota horien senitartekoei zuzendutako hezkuntza-jarduketak antolatzen eta kudeatzen, bai ikastetxeetako ikasleei edota horien familiari edo irakasleei zuzendutako jarduketak antolatzen eta kudeatzen; betiere, Vitoria-Gasteizen esparruan eta 2020-2021 ikasturtean pertsona horiek eskolan edo gizartean integrazteko bidea sustatu behar dute jarduketara horiek.

Hirugarrena. Oinarri arautzaile espezifikoak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko uztailaren 10eko erabakiaren bitartez onetsiak; ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 20.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea irekita egongo da deialdi honen oinarrien laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita 2020ko irailaren 30a arte, azken hori barne. Eskabideak epez kanpo aurkeztea diru-laguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 10a

Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkaria
ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE